

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Solana kontseilariak “Irakasleen garapen profesional eredu partekatu baterantz” monografikoaren irekieran parte hartu du

Dekanoen biltzar nazionalak irakasleen formazioaren inguruan ari dira egunotan, Iruñean

Osteguna, 2018.eko maiatzak 10

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak “Irakasleen garapen profesional eredu partekatu baterantz” monografikoan parte hartu du gaur arratsaldean, Hezkuntza fakultateen dekanoen Biltzarrak antolatuta. Gaur eta bihar izango da Iruñean.

Unibertsitateetako eta hainbat erkidegoetako agintari eta ordezkariak irakasleen formazioa eta irakaskuntzara

sarbidea zein izan behar den aztertzeko asmoz antolatu da monografikoa. Tartean hezkuntza graduetara sarrera, irakaskuntza plana eta praktika aldia aztertuko dituzte, baina baita formazio iraunkorra, hezkuntzaren beharretara egokitzeko graduen egokitzapena eta profesioaren duintasuna eta prestigioa hobetzeko bestelako neurriak ere.

Ikasgeletan kalitatea hobetzeko agente guztiak inplikatzearen garrantzia nabarmendu du Solana kontseilariak. “Elkar banatzen dugun interes eta ardura bati erantzuten dio gaurko honek eta geu ere aspaldi ari gara lanean, egoera zuzentzeko hainbat neurri abian jarritz, beti ere bikaintasuna sustatzeko, profesioa duintzeko eta etorkizuneko irakasleen enplegarritasuna indartzeko”, adierazi du. Ildo horretan, “prestigioa bikaintasunari atxikita doa eta horrek ikerketa jardueran gehiago egitea inplikatzeko”, azpimarratu du Solanak eta, hori dela eta, “guztion artean sustatu beharra daukagu unibertsitateko pertsonalaren ikerketa ibilbidea”.



Solana kontseilaria, Carlosena errektorea, San Pedro konferentzia-presidentea eta Rodríguez irakaslea jardunaldietan.

Monografikoan hainbat erkidegoetako ordezkariekin batera izan da Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari orokor Nekane Oroz. Eztabaida mahaietako batean berari egokitu zaio Nafarroako gobernuaren Hezkuntza departamentuak unibertsitateekin elkarlanean abiarazi dituen hainbat ekimen azaltzea.

Biharko saioa NUPen

Hezkuntza fakultateen Dekanoen biltzarrak Nafarroako Unibertsitate Publikoan izango du jarraipena bihar. “Eredutik inplementaziora, abiaraztea” izenburuarekin irakaskuntzara sartzeko eredu garatzeko Hezkuntza fakultateekin koordinazioan abiarazi diren, edo hasiko diren, hainbat ekimen ezagutaraziko dira.

Hezkuntza fakultateetako dekanoen biltzar nazionalako presidente Juan Carlos San Pedro, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore Alfonso Carlosena, Solana kontseilaria eta Miguel Rodriguez, NUPeko Giza Zientziak eta Gizarte fakultateko dekanoa.



Publikoa jardunaldietan.